

**Zeanuriko
Lehenengo
Mendi Duatloia
abenduaren
12an izango da**

10. orrialdea

**Igorreko XXXIX. Ziklo-krosa
abenduaren 6an**

Igorreko Ziklo-krosa Espainiako Kopako proba bat izango da aurten, baina datorren urtean barriro be Munduko Kopako lasterketa izatea espero dabe antolatzaileak. Nobedade moduan, aurten ziklokrosari andrak eta gizonak sari bardinak jasoko dabez. **11. orrialdea**



**Arratiako
Koruak hasi
ditu entseguak
zuzendari
barriagaz**

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

241

2015eko abenduaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Euskeraz biziteko konpromisoa hartuko dabe arratiarrak Euskerearen Nazinoarteko Egunean

Helduak euren hizkuntz ohiturak aldatu eta euskereagazko konpromisoa hartzeako, eta umeak ondo pasetea euskereagaz lotu dagien hainbat ekitaldi antolatu dira Arratian.

Abenduaren 3an Euskerearen Nazinoarteko Eguna ospatuten da eta egun horretan, alkarreak euskeraz egiteko konpromisoa sinatuko dabe Igorren, Berbalagun egitasmoaren bideoa aurkeztuko da Lemoan edo herritarrek euren euskerearen aldeko konpromisoa mural baten idatziko dabe Artean, besteak beste. Umeak ondo pasetako aukera ugari izango dabe, eurentzako tailerrak eta jolasak egongo dira eta karaokea eta jantzak egiteko aukerea be egongo da. Diman kantuan ibiliko da herriko jentea. Mendi lasterketen inguruko mahai-ingurua Lemoan, eta "Aitarena? Amarena? Zeinena da euskararen etxea?" izeneko berbaldia Zeanurin, izango dira egunak eskeiniko dauzan beste aukera batzuk. Areatzan zemendian hasi ziran Euskerearen Eguna ospatuten eta abenduaren 6ra arte egongo dira euskera bultzatzeko ekitaldiak. Horreen artean, III. Errefrau poteoa Arkaitz Estiballes eta Fredi Paiagaz, hilaren 5ean. **8. eta 9. orrialdeak**



DIMA

**Beinke jai
solidarioa
hilaren 19an**



"Beinke! Guk be in geinke" lelopean, abenduaren 19an, Derioko Gure Señeak eta Donostiako Gure Nahia Alkartasuna alkarreentzako dirua batzeako jaialdia antolatu dabe Diman. Alkarreok, gaixotasun arraroak daukizan personeren alde egiten dabe behar.

Jose Martin Bustintza "Tubi" herrikirolariak, Aitzol Atutxa azkolaria eta Ibon Iza zinegotziak aurkeztu eben egitasmoa. **5. orrialdea**

ARRATIA

Arteako taldeak irabazi dau Beldur Barik Arratia Lehiaketeta

Zazpi lan aurkeztu dira aurten Beldur Barik Arratia Lehiaketara eta Arteako taldearen *Beldurra gaintuz aukera berriez gozatu* izeneko lanak irabazi eta 300 euroko saria jaso dau. Bediako taldearen *Pozoia TB* lanak, barriz, aitamen berezia. Beldur Barik Lehiaketeta indarkeria sexistea prebenidutako gazteak zuzendutako bideo lehiaketeta da eta bertan neska eta mutilak zelantzen egiten deuseen aurre desbarditasun egoerai adierazoten dabe. **7. orrialdea**

Athleticeko kamiseta baten

ZOKKETE



Abenduaren 24ra arte
erosketaren bat egiten
daben gure bezeroen artean



Sabino Arana 3, Igorre
94 657 70 03

IGORRE

Elikadura Subirautza eta TTIP

Igitiek Arratiako Baserritar Agroekologiaren alkarreak Elikadura Subirautza-aren gaineko V. Topaketa antolatu dau Igorren abenduaren 10etik 12ra bitartean. Abenduaren 10ean, Mikel Oterok eta Julen Zulaikak Inbersino eta Merkataritza Lankidetzaren Transatlantikoaren (TTIP) gaineko berbaldia emongo dabe Igorreko Kultur Etxean zazpiretan. Hurrengo egunean zirku eta txotxongilo ikuskizuna egongo da Kiñu Gaztetxean. Domekan, balantzea eta hurrengo urteko plangintzea egingo dabe Igitiekoak. **5. orrialdea**

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com**

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

60 URTE ARRATIAGINTZAN: ESCUELA PARROQUIAL DE APRENDICES. GAURKO ZULAIAR LANBIDE IKASTEGIA

1955. urteko San Martin eguna zan, zemendiaren 11. Don Jose Maria Gardoki —Andra Mari parrokiako koadjutorea— larri ibiliko zan. Egun haretan bedeinkazio berezia eukan egiteko.

Zeanuriko Udalak Etxebarria eraikina itxia eukan, baina hainbat udal-zerbitzuz okupata, atxilotuak jagoteko ziegak, adibidez, Martin Orbe abadeak kontetan deuskunez. San Martin egun haretan, 25 ikasle zeanuriztar egozan, lan franko egin ostean, eskola izateko egokitu zan eraikinean.

Inaugurazio egunaren aurretik hainbat behar egin eben Iñaki Rotaetxek eta Don Pedro Atutxa abadeak. Proiektu hori nahiko barria eta ezezagun izanik, Don

Pedrok herrian eukan izen onak asko lagundu eban herritarren artean asmoa zabaltzen. Gainera, etxez etxe ibili zan gurasoak konbenzidu guran umeak hara bialtzeko.

Heldu zan eguna. San Martin. Gure herri kulturen be Martiniko esku langile trebe eta buru argia izan da, euskaldunai hainbat aurrerapen ekarria mitoi kasu egin ezker: garia, zerrea, errotako ardatza... Txikia bezain trebea. Ez zan jagole txarra holango proiektua bedeinkatzeko.

Urte hareetan, arazoak arazo, ekimen pribaduko eskolen artean aukera bat baino gehiago izanik, holan idazten dau Martin Orbek, Eleizearen Eskola izatea aukera-

tu zan. Holan, Zeanuriko Andra Mari eta Santiago parrokia bien gidaritzapean jardungo eban *Escuela Parroquial de Aprendices* izenagaz.

Bedeinkazioa izan zan, baina ez nahikoa. Luis Arregi maisuak hartu eban ardua nagusia, eta Gardokik laguntzen eutsan eskola batzuk emoten.

Etorkizuna danok ezetu dogu. 1967. urtean Zulaibar Lanbide Ikastegia lege, eta gaur egun be, zelango beharra eta dinamismoa emon deusan Zeanuri eta Arratia osoari, gazteak prestatuz eta lanbide duin baterako hezkuntza bermatuz.

Arratia egiten, arratiagintzan tresna nahi eta nahiezkoa izan



Zulaibarreko ikasleak sasoi haretan.

da ikastegi hau, hasieran *Escuela Parroquial de Aprendices*. Holangoak ez daiguzan ahaztu. Historia ez da geugaz hasi. Amaituko be ez. Baina aitormena eta esker

ona behar beharrezkoak doguz gizakian oinarritzen dan hezkuntza eta ekonomia bat ereigi gura badoguz.

Jose Mari Kortazar

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Zemendiaren 30etik abenduaren 6ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 7tik 13ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 14tik 20ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxeak

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:30etara 30

minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteaoraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarrik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.


Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

Areatzako Euskal Jaia. Zuztar eta adar luzeak

J oan dan urri bigarrenaren 24an Areatzako herriak –garai bariko– zortzigarren Euskal Jaia ospatu eban. Garai barikoa dinot 1897 urtean jadanik, Areatzak bere lehenengo Euskal Jaia ospatu ebalako.

Foruak desagertze, zentralizazio, industrializazio, nazionalismoaren sortze prozesuan eta azken baten, XIX. gizaldi amaierako giro gatazkatsu eta aldakorren garaietan errotzen da bez zuztarrak gaur eguneraino Euskal Jaia izenaz ailegau jakuzan ekimenak. Lore Jokoak, Euskal Jaialdiak, Euskal Festak eta beste hainbat izen ugari izan daben arren, jai honeek guztiak, euskal izaera, ohiturak, hizkuntza eta bizimodua babestu eta aldarrikatzeko ekimenak ziran. Erromantizismoaren eskolan txertatuak orduko euskaldunoi gainera etozkien aldaketari aurre egiteko erronka moduan sortzean dira Euskal Jaiak. Giro horretan ospatu zan Areatzako lehenengo Euskal Jaia 1897an; Areatza herri euskaldun eta karlismoari lotua agertzen zan, ohitura eta foruak eutsi guran ebiltzan gizar-tearen isla eta eredua.

Mende luzeko zuztarrak ditu, beraz, Areatzako Euskal Jaiak. Urte luzeetan lur azpitik, agerian azaldu barik, hedatu diran erroak. 1997an barriz, lehenengo jaien 100 urtemugan, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza

Batzordea Areatzan bertan egin eta Jean Luis Davantek Euskal Jaien sortzaile eta sustatzailea izan zan Antoine Abbadiaren bizitza eta lanari buruzko berbaldia eskeini eban. Horren harira be, Luzia Alberro Goikoetxearen "Areatzako Euskal Jaia 1897" liburua aurkeztu eta jai giroan feria eta txarribodea ospatu genduan. Eta Bigarren Euskal Jai hau antolatzeke orduan honako hau aitatzten zan "Garapena bai, baina euskerearen egoereak, eta beraz euskal kulturaren orohar, kinka larrian dirau... Areatzan euskerea, euskal kultura indartze, suspertze zein bultzatze lehen bezain garrantzitsua egiten jaku...". Orduan be, jaiaren errazoi nagusiak euskal kultura eta hizkuntza babestu eta suspertze ziran.

Hata guzti be; gaur egun zelan suspertu ordea euskal kultura eta euskerea? Hamaika hari, bide, adar eta, batez be, borondate behar dauan lan eskerge da. Desafio horretan, Euskal Jaia urrats eta ekarpen txikia baino ez da, baina horregaz batera topagune izateke aukerea be bada. Horregaitik, Areatzako Euskal Jaiari jarraipen eta iraunkortasuna emoteke enpeinua.

Urte honeetan guztietan Euskal Jaien izakerea edo kontzeptua be aldatu egin da, gaurko gizartea ez da XIX. mendekoa, gure ohiturak berreskuratu, ezetutera emon eta euskerea bultzatze oinarizko helburu badira be, hainbat idea eta giza molde baliario ezartze Euskal Jaiaren helburutzat jo behar dogu: besteak beste, euskaltasunaren unibersalidatea, alkartasuna, genero bardintasuna eta parte hartzea...

Gauzak holan; Euskal Jaia tresna bat da eta ohiturak lanabesa. Parte hartze eta integrazinoa bideak dira. Personak eta euskal gizartea helburuak.

Azken urteotako jaietan, gai nagusi bat aukeratu eta gai horren gainean edo inguruan hainbat ekintza eta material landu dogu. Errepaso bat eginez, honeek izan dira azken 8 urteotako Euskal Jaiak: Txarribodea (2008); Sagarrak eta gaztainak, baserrietako oinarizko elikadura (2009); Linoa eta euskal jantziak (2010); Akelarrea eta sendabedarrak (2011); Euskal joko, kirol eta jantzak (2012); Euskal ezkontza (2013); Euskal musika tresna tradizionalak (2014) eta Etxean egindako edabe eta edariak 2015ean. Horreek guztiak aukera emon deuskue hainbat material eta kultura ondare landuteke, edozein egun eta lekutan aprobetxau daitekena. (Sagar, gaztaina, burdin eta sendabedarrak buruzko panel bildumak, antxinako tresneria, prensa eta danbolina, jokoak eta abar).

Jaia bera antolatuteke erak –bideak– be, bere garrantzia dauka. Areatzako Euskal Jaia antolatuteke batzorde zabala eratzen da, herriko edonork parte hartzeke aukerea dauka eta ekarpen guztiak ondo etorriak dira. Proposatzen diran ekintzetan genero, alkartasun, harrera eta gizarteratze erispideak aintzat hartzean dira. Billarrotarren inplikazio eta lana ezinbestekoa dogu jai antolatzeke. Aniztasunak bide zabala eskeintzen deusku galtzadan topatzen doguzan oztipoak saihesteko.

Eta eurekaz batera Areatza, Arratia eta Bizkaia nahiz Euskal Herriko beste hainbat lekutatik etorritako jente eta eragileren laguntzea izan da; ezpabere, ezinezkoa litzateke holango jai bat antolatzea.

Atzen baten; ohituratik abiatu, euskerea lan eta komunikazio hizkuntza nagusizat erabili, Areatzara ailegau diran euskal uritar barriak jaietan txertatu, euskal diasporaren ekarpena bameratu, andren presentzia indartu, herriko eragile eta sektore desbardinak jaiaren antolaketan parte hartu...

Horreek guztiak dira Areatzako Euskal Jaiaren zugatzak dituan erro eta adar luzeak, euskal basoa zabaldu gura dogunok beste hainbat kimu nahiz zugatz landatu eta sendotu behar dogu.

Jari gaitzean auzolanean!

MIKEL URRIZ

ERETXIA



AMAIA ARAUZO

Igorreko Udaleko
Euskera Teknikaria

Bardintasunaren izenean

Egoera desbardinetan dagozanak bardin tratetea ez da bardintasuna.

Arreta ipini beharko geunke printzipio horretan, izan be, oso zabaldua dagoan idea da euskerea eta gaztelania bardin tratatu behar doguzala, bata zein bestea diskriminatu barik. Eta ez gara konturatuten, hori eginda, egoera normalizatuan dagoan hizkuntza bultzatzen dogula, hizkuntza gitxiaren kaltetan.

Argitu daigun kontzeptua: aukera bardin izateke bidea emotea da bardintasuna, eta hori lortzeke beharrezkoa da babesteko neurriak hartzea eta neurri horreek garatzea.

Hona hizkuntza biak bardin tratatu ez diran gertakari bi:

Bardintasunaren izenean, gaztelania eta gaztelaniadun elebakarrak diskriminetan doguzalakoan, idatzia beti, hitzez hitz hizkuntza bietan egin behar ei doguz. "Erromeria / Romeria, Txupinazoa / Chupinazo, Kuadrilen arteko olimpiadak / Olimpiadas entre cuadrillas...". Gura dauanak irakuri leike azken urteotako jaietako egitarauak. Bietara jari ezker, noren alde egiten dogu? Noren kontra? Bardintasunaren izenean, arpeleko diran bikozketak sortzean doguz eta gainera, gaztelaniakoa be begi aurrean daukagun bitartean, traba bihurtzen da euskaldunok gure hizkuntza ohiturak aldatzeke eta euskerazko adierazpen barriak ikasteko. Euskeraz ez dakienentzat be, euskerazko ohiko berbetara ohitzen dira, eta apurka-apurka eta modu errezean euskerearen munduan integretako ateak zabalduten jakiez. Guztiontzako da onuragarria.

Bestetik, orain asko ez dala, Igorreko kiroldegian umeentzako eskolaz kanpoko ikastaro bat bertan behera gelditu zan ikastaroa emon behar

eban irakasleak euskeraz ez ekialako eta ez zalako beste irakasle euskaldunik topau. Igorreko Udalak babes-neurriak ezarrita eukazan, ago batez onartuta eukan eta dauka, 18 urtetik beherakoentzako ikastaroak euskera hutsean izango dirala.

Kontuan euki behar da, ume eta gazteentzako eskola orduz kanpoko jarduera gehienak euren gustukoak izaten dirala: lagunartean egiten dira, eta gozagarriak eta ludikoak izaten dira. Berebiziko garrantzia hartzean dau euskerea gustuko egoerak eta bizipen positiboak lotzeak, izan be, euskerea eskoleagaz bakarrik lotzean badabe, euskereagaz eukiko daben harremana ahula izango da. Gune horreek babestea funtsezkoa da umeak euskerea euren egiteke.

Gertakari horretan, batzuek hizkuntza biak bardin trateteke eskaerea egin eben. Irakurleak hausnartu dagiela era batera edo bestera jokatura, zeren alde edo kontra egingo genduan.

Euskereak, erabilteke aukerak eta espazioak behar ditu, esparru desbardinak, hiztunak, bihotzak... irabazi behar ditu eta danon ardura da hori holan izango dala bematzea eta, urtero lez, abenduaren 3an idea hori hedatuteke dogu pausu garrantzitsua emonda norabide horretan, antolatuteke daukagun ekitaldiaren bidez: Igorreko alkarteak batera euskerearen erabilera eta presentzia bultzatzeke hizarmena sinatuteke da eta alkarteak sensibilizazio saioak jasotuteke konpromisoa hartuteke dabe, besteak beste. Horren bidez, euskerearen erabilera sozialaren inguruko hausnarketa gune bat sortu gura dogu. Alkarteak euskerearen gure daukien erantzukizuna eurenaganatzea gura dogu, argi ikustea kirolean, aisian, kultur jardueretan eta abarretan alkarteak asko egin ahal dabela euskerearen sustapenean. Alkartekideak, hiztun moduan, uneoro aukeratzen dabezan hizkuntza portaerak eta jarakerak daukien eraginaz hausnartzea gura dogu: aurreretiak desmontatu, bildurak uxatu eta alkartekideak ahalmentu.

Euskerea bizibarituteke badogu, hizkuntza-jarkera aktiboak bultzatu behar doguz, izan be, ezer egiten ez badogu eta pasibotasunez jokaten badogu, ahulagoa dan hizkuntzak esparruak, espazioak, hiztunak, bihotzak galduko dauz. Gizarteagaz hartzean dogun konpromisoa eta betebeharra da; bai maila personalean, bai maila kolektiboan.

Eta ez ahaztu, egoera desbardinetan dagozanak bardin tratetea ez da bardintasuna.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrik eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Txoten



Arnasestuak eta arnasearen etenak eraginda glotis eta diafragmean sortzean dan espasmo antzekoa da (txoténa, agoskatuta). Galtzeke arriskuan dogu txoten berbea, ze "hipoa" gainezka dabil aspaldian. Ubiden txotin esaten dabe, eta batuaz, zotin da. Sano zabalduta dabilen ustea da txotena kentzeke sustua emotea dala erarik onena, irudian agertuten dan moduan. Lartxo edan ezker be, batzuetan, txotena urtetan ei dau.

LUMATUTEN

SARA GUTIERREZ
EGILIORGure memoria
kolektiboa

Areatzako Emakumeen Foroan, orain dala urte batzuk planteau genduan gure herriko andrak egindako lana eta gizarteari egindako ekarpenak batu eta ikustarazoteko beharra egoala. Holan hasi ginan *Areatzako emakumeen memoria eta bizi esperientziak* dokumentala sortuten. Gaur egun ezetuten dogun Areatza osotuteko, andrak egindako ekarpena ezetu arazoteko tresna bat dala esango neuke

Batzar asko egin genduzan dokumentalaren helburua adostuten, gaia definiduten, alkarrizketatuen zerrendea osotuten... eta 2013 urtean hasi ginan lehen alkarrizketak grabetan. Bi urte luzez ibili gara herriko 40 andra ingururen bizipenak batzean.

Dokumentalaren ardatza, andrak egindako lana erakustea da, horregaitik, ofizio, arlo

eta adin desbardineta andrak alkarrizketatu doguz: baserritarrak, irakasleak, enpresariak, akademikak, ostalaritzakoak, etorkinak, fabriketan lan egin dabenak, kirolariak, kultura eta musika arlokoak, gaztetxoak... Areatzako andrak, atzokoak eta gaurkoak, etxean lan egiteaz gain, betidanik etxetik kanpo be lan egin dabelako.

Guztiz 40 ordu grabau dira eta ordu eta laurdenean laburdildu dau informazio guztia, genero eta ikus-entzunezkoetan aditua dan Zuberora Andresek. Lan bikaina berea!

Dokumentalean agertuten diran andren bizi esperientziak, herriko andra guztiak egiten daben lanaren erakusgarri dira, beraz "errekonoizimientua" guztientzat da. Andrak egindako lana, Areatzako historia eta garapenaren lekuko eta eragile oso garrantzitsuak diralako eta behar dan moduan baloretea merezidu dabelako.

ZERTZEAN



UNAX IRAZABAL

Mudantzak

Bhin, Mendebala gailendu eta **gutik nira** bidaia eroso egin genuen. Iraultzaren xarma lurrundu egin zitzaigun eta asmo politiko gorena zena, aldaketara murriztua izan zen.

Ideologien eremu mortuan sartu ginen eta apalategietako liburuak ere aldatu ziren.

Non dira sasoi bateko **Lureko** liburu gorriak? Akaso ziega batean gatibu, denborak zeharo beilegiturik.

Hidratanteak bizerra ordeztu zuen eta ohartzeke, kontsumo makina perfektu bilakatu ginen.

Harrezkero, olatuen menera gabiltza, itsaso urru-nean noraezean dabilen belontzia legez.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Hogeta seigarren aldi honetan Zeanuriko enduro taldeak hotz galanta pasau dau egindako urteeran. Denporea lagun euki ez arren ostera, gogotsu arrankau eben motorra motorzaleak zemendiaren 22an. Urte honetako errekorridua laburragoa izan da eguraldiagaitik baina Oletako Herrikoan tripea beteteko geldialditxo ez zan faltau badaezpadan. Zeanuri-Oleta-Ubide-Zeanuri ibilbidean txirringakaz edurra ikututeko aukerea be euki eben motordunak. Ez dago honeek geldituko dituanik, ohitureagaz segiduteko gasolinarik ez jakie falta behintzat deposituan.

Irati Urien



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

24h
EGUNEKO
OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

DIMA

Gaixotasun arraroak ikertzeko dirua batzeako jaialdia abenduaren 19an



"Beinke! Guk be in geinke".

Erredakzioa

"Beinke! Guk be in geinke" lelopean, abenduaren 19an, Derioko

Gure Señeak eta Donostiako Gure Nahia Alkartasuna alkarteentzako dirua batzeako jaialdia antolatu dabe Diman. Gure Señeak eta

Gure Nahia Alkartasunak gaixotasun arraroak daukiezan personeren alde egiten dabe behar.

Arrastiko bostetatik afalordua arte, ikuskizun bi egongo dira frontoian. Lehenengotik, txikerrenak kantau, olgau eta barre egiteko aukerea izango dabe Ane Pirata eta Irrien Lagunakaz. Ondoren "Guk be in geinke" ikuskizunean, herri-kirolak eta musikeak garanti-zauko dabe txikerren eta nagusien dibersinoa. Gainera, Joxe Martin Bustintza "Tubik" marka barria egin gura dau Lasto Altxatzen eta dana prest dago marka hori erregistratuko. Gero Eskean Kristö taldeak kontzertu laburtxo eskeiniko dau eta ondoren Ibon Izak eta Bihotz Gorospek sortutako "Guk be in geinke" kantua kantauko dabe danak batera. Aurkezpen lanak Zuriñe Iñarritik eta Eneko Izak egingo ditue. Ikuskizuna amaitutakoan, afaria egongo da.

Beñat Etxebarria futbolariak, Haimar Zubeldia txirindulariak eta beste kirolari batzuek sinatutako baloi eta kamiseten enkan-

tea be egongo da.

Ekimenak "hari luzea"

Zemendiaren 20an, Tubi herri-kirolariak, Ibon Iza kultura zinegotziak eta Aitzol Atutxa azkolariak ekimenaren aurkezpena egin eben udaletxean. Ekimenak "hari luzea" dakarrela esan eban Ibon Izak. Orain dala denpora bat Tubik proposatu eban zerbaist egitea alkarte honeei lagunduteko, eta Aitzol Atutxa be proiektuan sartu, eta proiektua gero eta handiago egin zan. Herri eta inguruko jentek be hartu dau parte ikuskizuna osotuteko. Holan, Gazte Barri jantza taldeak, Irrien Lagunak, bertsolariak, herri kirolariak, Eskean Kristök eta herriko jentek egingako beharragaz frontoia betetea espero dabe antolatzaileak.

Hiru sarrera mota dagoz: zuria, berdea eta gorria. Zuriak 7 euro balio dau eta umeen afarirako da; berdeak 5 euroko prezioa dauka eta Irrien Lagunak eta ikuskizunera sartzeako da; gorria, barriz, nagusien afarirako. Ikuskizuna

ikusita eta afaldu gura izan ezker, txartel bi erosi behar dira.

Ikuskizuna

Dimako Gazte Barri jantza taldeak emongo deutso hasikerea "Beinke! Guk be in geinke" ikuskizunari. Irrien Lagunak-en emonaldien ostean, Gure Señeak eta Gure Nahia Alkartasuna alkarteak egiten daben beharra aurkeztuko dabe frontoian. Izan be, ekimen hau alkarte horreei lagunduteko eta euren lana ikusgarri egiteko antolatu da.

Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia bertsolarien ostean, talde bi neurtuko dira herri-kirolatan. Diman, puntako herri-kirolari asko dagoz eta herriko eta ingurukoak hartuko dabe parte ekimenari babesa emoteko. Han egongo dira, Jose Maria Atutxa, Haizea Ziarrusta, Aitzol Atutxa, Inar Urruzuno, Badaiotz taldeko soka-tiralariak, Jon Loiola, Jon Lapatzaran, Ugaitz Mugerza eta Aimar Irigoien.

Tubi, Lasto Altxatzeko markea apurtuten saiatuko da; hau da, 25 edo 26 jasoaldi egiten.

ZEBERIO

Jentek bialdutako argazkiak egingo dau Udalak 2016ko egutegia

Erredakzioa

Zeberio Udalak 2016ko egutegia egingo dau herriko etxe guztietan bananduteko. Egutegia egiteko, zemendiaren amaiera arte herritarrei Zeberio gaineko argazki "esanguratsuak" bialtze-ko eskatu eutseen. Orain, jasotako argazkien artean, egutegian joango diranak aukeratu behar ditue.

Atzenengo urteetan Udalak ateratako egutegiak antxinako argazkiak jasoten ebazan. Montse-rrak Petralanda kultura zinegotziaren arabera, aurten zerbaist diferentea egin gura izan dabe eta jenteari parte hartzeako eta Zeberio gehien gustetan jakiezan txoko eta baztarren argazkiak bialduteko aukerea emotea. Izan be, paraje ederrak izan arren, "batzuetan ez gara paretan gure herriari begiratuten" dino.

Partaidetzea oso handia izan ez arren, bai izan da egutegia egiteko bestekoa eta sano argazki desbardinak jaso ditue. Gehienak Zeberio parajeak erakusten dabezanak dira, baina antxinako argazkiak be badago hartu dabezan argazkien artean.

IGORRE

TTIParen inguruko berbaldiak zabalduko dau Arratiako Elikadura Subirautzaren V. Topaketea

Erredakzioa

Igitiek, Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkartek, abenduaren 10etik 12ra bitartean Elikadura Subirautzaren V. Topaketea antolatu dau. TTIParen inguruko berbaldia, zirku eta txotxongilo ikuskizuna eta Igitieko urteko balantzea eta datorren urteko plangintzea egingo dabez egun horreetan.

TTIP (*Transatlantic Trade and Investment Partnership*; euskeraz Inbersino eta Merkataritza Lankidetzat Transatlantiko) EBren eta AEBen arteko merkataritza itunak, multinazionalen alde egiten dau eta Atlantikoaren alde biko herri-

tarren kaltetan. Gaia Mikel Oterok eta Julen Zulaikak landuko dabe gaia Igorreko Kultur Etxean.

Abenduak 10, eguna

19:00etan, Mikel Otero eta Julen Zulaikaren eskutik, TTIParen inguruko berbaldia Kultur Etxean.

Abenduak 11, barikua

19:30ean, *BidaiBizitzen* zirku eta txotxongilo ikuskizuna Izaskun Ruedaren eskutik. Igorreko Kiñu Gaztetxean.

Abenduak 12, zapatua

09:00etan, Igitieko barne hausnarketa saioa. Urteko balantzea eta datorren urteko plangintzea. 14:00etan bazkaria. Ondoren,

urteko balantzea eta datorren urteko plangintzea.

19:00etan, kontzertu lasaia. Kiñu Gaztetxean.



FRUTERIA BEATRIZ
FRUTEA PREZIORIK ONENEAN!

ASTEKO ESKEINTZA

Patatea 10 kg.	3,99€
Naranjak 2 kg.	0,99€
Lehen mailako Goldena, kiloa	0,89€
Tomate kiloa	0,99€
Letxuga bi	0,99€

EGUNERO ESKEINTZA BEREZIAK!

Lehendakari Agirre 31 Bis (Igorre) Telefonoa: 94 673 64 51

belagorri

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zeliakoentzat elikagaiak
estetiziena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odonologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igorre-Bikala
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulu 100
R.P.S. 21/06

ARRATIA

Arratiako alkarteak bardintasunean oinarritutako jentarte baten alde

Erredakzioa

Zemendiaren 25aren inguruan, Eusko Jaurlaritzak *Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herriarren pertzepzioa eta iritziak* ikerketea publikatu eban. Ikerketa horren arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleen % 96k "onartezintzat" jotzen dabe andren aurkako indarkeria eta % 77k uste dabe indarkeria ez dala amaituko gizon eta andren arteko bardintasuna lortu arte. Arratian be, andren kontrako indarkeriagaz amaitutako bardintasuna aldarrikatu eben zemendiaren 25aren inguruko hainbat ekitalditan.

Euriak, haizeak eta txingorak tartetxo bat egin eutsien Lemoako ekitaldiari eta aterri zan herriko hamasei alkarteak futbol zelaian puzzle baten bidez puntu morea osatu ebenean. Gaztetxo batzuek bertso batzuk kantatu ebezan eta ondoren Maite Urrutxua Lemoako Bardintasun zinegotziak andren kontrako indarkeria prebenidutako bardintasunaren garrantzia azpimarratu eban.

Ekitaldi desbardina izan arren, idea bardinean oinarritu zan Igorrekoa. Hemen be herriko alkarteak ekitaldi sinbolikoa egin eben: eskuak morez tintatu eta mural baten itxi ebezan eskuen arrastoak indarkeria matxisteari ezetz esateko. Igorreko "Gu be bai Runners" taldeko Iraia Garcia irakasleak irakuri eban adierazpena.

Martxa Morea

Igorreko konzentrazioa, Beldur Barik Arratia eta Martxa Morea Arratia mailan antolatuten dira. Aurten



Lemoako alkarteak puntu morea osatu eben futbol zelaian.



Igorreko alkartearen ekitaldia.

Martxa Moreak Igorretik Bediarako ibilbidea egin eban eta Bediak trikitilariak egin eutsen harrerea ibiltariak. Aitziber Linaza Bardintasun zinegotziak Arratian be badala indar-

keria matxistea ekarri eban gogora. Gazteak bertsoak kantatu eta, amaituteko, Uxue Alberdi eta Mikel Markezzen "Konplize ditut eta" kantua abestu eben bertaratutakoak.

LEMOA



Lemoa.

Aurrekontuak diseinetako prozesua amaituta dago

Erredakzioa

Zemendiaren 12an Lemoako Udaleko 2016ko aurrekontuak diseinetako azken pausua bete zan herri batzar informatibo batez. Bertan, Saioa Elejabarrieta alkateak prozesuan zehar jasotako informazioa aurkeztu eban. Aurreko urteko antzeko metodologia erabili da aurten, barritasun batez: jenteari proiektu batzuen artean aukeratzeko ahalmena emon jako.

Aurreko urteetan legez, faseka funtzionau dau aurtengo prozesu parte-hartzaileak. Lehenengo fasean ekarpenak jasotzen dira; bai Udal aplikazioan, bai Lemoako auzoetan ipinitako postontzietan.

Bigarren fasean, Udal ordezkariak auzoetatik pasatu dira gutunontzietako informazioa jasotzen eta auzokideen eretxiak zuzenean ezetuten. Fase honetan ia 100 lemoaztarrek

hartu eben parte.

Proiektua aukeratzeko botoak

Hirugarren fasean dago aurtengo barritasuna. Lemoaztarrek, aurreko prozesuetan aitatutako lau proiekturen artean lehentasun bat ezarteko aukerea izan dabe. Horretarako hiru postontzi ipini dira Lemoako gune desbardinetan jenteari botoa emoteko. Seirehun lemoaztar inguruk emon dabe botoa.

Boto gehien lortu dauan proiektua, Elizondoko kirol parkea konpontzekoa izan da: 332 boto jaso dauz. Zibu parkeren bat konpontzekoak 173 boto jaso ditu; pasealekua barritatzekoak 63 boto, eta komun publikoak ipintekoak 24 boto.

Orainguz, laugarren fasean, batzorde eta Udal teknikariak batera jasotako informazio guztia sailkatzen eta aztertzen dabil Lemoako Udala.

ARRATIA

Musika tresnarik jotzen dozu?

Erredakzioa

Negua kontzertu sasoia da eta Arratian musika zaletasun handia dago. Musika Eskolea, Abesbatzak, rock bandak... Asko dira talderen baten abestu edo musika tresnaren bat jotzen dabena. Arratiarren ezaugarria ete da mu-

sika egiten jakitea? Hori dala eta, gure irakurleen artean zenbat musikari dagozan jakiteko da inkesta hau. Aukeratu esaldi bat.
a) Musika tresnaren bat jotzen dot.
b) Abestu egiten dot talde edo abesbatzen baten.
c) Ez dakit ez musika jotzen, ez kantetan.

Sukaldaritza kontuetan, danerik

Aurreko inkestan sukaldatzen baekien itaundu geuntsen irakurleak. Danerik egon da. Laurden batek eguneroko jatorduak prestatzeko lain dakiala erantzun dau; beste laurden batek eguneroko jatorduak eta lagun eta familiaren arteko ospakizunetako jatorduak prestatzen ditu; eta erantzun dabenen beste erdia edo maila profesionalean edo oinarri-oinarrikoan banatuten da.

IGORRE

Gabonetako loteria taloitegi bateko partizipazioak baliobakotu egin dira

Erredakzioa

Igorreko Arratiko Zekorrek Rugby Tabernan Gabonetako loteriako taloitegi bat ostu dabe. Tabernakoak salaketea ipini dabe Er-

tzaintzan eta ostutako taloitegi horretako txartelak balio barik geratu dira.

Loteria zenbakia 14066 da eta baliobakotu diran txartelak 476tik 500era doazan dira.

ZEKUTZE
JATEKOA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Baimonak: A1, A, BTP, B
Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, n.º 3. 48530 LEMOA, Bizkaia
Tel: 000 481 839 eta 000 200 717

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ARRRATIA

Arteako lanak irabazi dau Beldur Barik Arratia

Erredakzinoa

Arteako 12 eta 17 urte bitarteko gazteak egindako *Beldurra*

gaindituz aukera berriez gozatu lanak irabazi dau Beldur Barik Arratia Lehiaketea. Bediako Gazte Txokokoak egindako Pozoia



Parte hartzaileak.

TB bideoak aitamen berezia jaso eban. Sari banaketea zemendiarren 27an izan zan Zeanuriko Kultur Etxean.

Arratiako zazpi lan egon dira lehian, igaz baino bat gehiago. Baina aurten aurkeztu diran lan guztiak lehenengo kategoriakoak izan dira; hau da 12 eta 17 urte bitarteko gazteak egindakoak. Areatzatik lan bat bialdu dabe lehiaketara, Arteatik beste bat, Bediatik bat, Igorretik hiru eta Lemoatik bat.

Bideo irabazleak itxura aldetik estereotipoak jarraitu ez, edo heteroaraia apurtzen daben gazteak bildur barik biziten animau gura ditu. Carol Celis Botello, Josu Bilbao Goikoetxea, Sheila del Bosque Lucha, Andoni Vazquez Aspe, Natalia Celis Botello eta Samira Sekkari dira bideoaren egileak eta Miguel Angel Etxebarria Arratiako Udalen Mankomunitadeko presidentearen eskutik jaso eben 300 euroko saria.



Arteako talde irabazlea.

Ekitaldia, Apika taldeko pailazoak animau eben.

Homofobiaren kontrako ikastaroa

Beldur Barik Arratiak 300 euroko sari bi daukaz, kategoria bakotzarantzako bat. Hau da, 12-17 urte artekoentzat 300 euroko sari bat, eta 18-26 urte bitartekoentzat bes-

te bat. Baina aurten ez da aurkeztu bigarren kategoriako lanik. Emon barik geratu dan diruagaz gazteentzako ikastaro bat antolatuko dau Mankomunitadeko Bardintasan Sailak. "Diru horregaz, Institutuan, homofobiaren kontrako ikastaro bat antolatuko dogu. Premina handia dago eta" dino Miren Urresti AUMko Bardintasan Teknikariak.

IGORRE

Igorreztar bateri ipinitako isuna dala eta, asanblada deitu dabe Kultur Etxean



Jon Bilbao.

Erredakzinoa

Jon Bilbao igorreztarari 3001 euroko isuna eta sei hilabetez kirolguneetara sartzeko debekua ipini eutsen 2012ko Athleticen finalean, Madrilgo Vicente Calderon futbol zelaian, arrano baltza agertzen dan bufanda bat eroteagaitik. Isuna 2012ko garagarilaren 17an heldu jakon eta orain, bide administratiboa amaituta, epaitegira joatea baloretan dago Bilbao. Aurrera egiteko babesa izango dauan ala ez jakiteko asmoz, asanbladara deitu dabe abenduaren 2an, 19:30ean, Igorreko Kultur Etxean hainbat herritarrek.

Egoera administratiboa amaituta, epaitegira jo edo isuna

ordaintzea dira Jon Bilbaoren alternatibak. Orain arteko errekurso guztiak atzera bota dabezan arren, bere abogadua baikorra dala dino "orain dala astebete, ildo bereko beste kasu bat egon da Iruñean eta errazoa emon deutse nire antzera egoan gazte bateri. Printzipioz 3001 euroko isuna ordaindu behar dot abenduaren 20a baino lehen, eta kirol instalazinoetara sartzeko debekua jarri deuste 6 hilabetetarako" azaldu deutso BEGITURI Bilbaok.

Epaiketara eroteko errazoa "injustizia bat salatzea da eta etorkizunean norbait nire kasuan balego jurisprudenzia sortzean laguntzea da, barriz ez gertatze-ko".

Ez da medikua, baina gure osasuna zaintzen du.

Ez da ingeniaria, baina gure paisaia zaintzen du.

Ez da irakaslea, baina gure kultura zaintzen du.

Hori da geurea

Horrelakoak dira gure ekoizleak

Profesional handiak, guretzat elikagai osasungarri, samur eta naturalak ekoizteaz gain, gure osasuna, paisaia eta kultura zaintzen dutenak.

Horregatik, elikagai hauek kontsumitzea **ona da denontzat.**

Goi mailako kalitatea eta jatorri deitura duten elikagaiak



ABENDUAK 3. EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Euskeraz egiteko konpromisoa hartuko dabe arratiarrak

Abenduaren 3a Euskerearen Nazinoarteko Eguna da. Euskereak oraindino ez dau normalizazioa lortu, eta, beste datu kezagarriren artean, herri euskaldunenetan erabilera gitxitu egin dala erakutsi eban Soziolinguistika Klusterraren atzen neurketeak.



Erredakzioa

Horregaitik, euskera normalizazio beharrezkoak dira konzientiazino egunak.

Arratian antolatutako ekintzak euskera sustatzeko alde bitatik eragin gura dabe. Alde batetik, txikirenak olgeteagaz eta ondo

paseteagaz lotu dagiela euskera; eta bestetik, helduak hizkuntz ohiturak aldatu eta euskeraz egiteko konpromisoa hartu dagiela. Hori dala eta, Igorren hitzarmen bat sinatuko dabe alkarteak Udalgaz, eta Artean, modu informaleko baten, hormairudi baten idatziko dabe herritarrek euren euskerea-

gazko konpromisoa.

Umeak euskera gustuko egoera eta bizipenakaz lotu dagan, ekitaldi ugari antolatu dira Arratian eta Zeberion.

Arantzazu

Ospakizunak, arrastiko bostetan hasiko dira frontoian. Arantzazun

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua begitu@topagunea.com helbidera neurria adierazoz

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898

AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

begitu
arratia urdide pobretu

Kili-Kili Umeen denda

Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
[kiliigorre@gmail.com](mailto:kilikigorre@gmail.com)

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

be umeak euskeraz egitera animau gura dabez herrian eta eurei zuzendutako ekintza bategaz hasiko dira. Holan, Euskal Herriko mapea egin eta bertan euskalkiak margoztuko dabez Eleiz Portaleko Gazte Asanbladakoak umeakaz batera.

Gitxi gorabehera ordu erdi beranduago, 17:30ak aldera, sari banaketea egongo da. Udalak lehiaketea antolatu eban euskeraren aldeko lema bat egiteko eta orduan emongo da jakitera zein izan dan irabazlea. Ondoren, bertaratutako guztiak euskeraren aldeko bertso eta kantu ezagunak kantauko dabez eta amaituteko, seirak aldera, txokolatea egongo da.

Areatza

Areatzan zemendiaren 30ean hasi ziran Euskerearen Eguna ospatuten eta abenduaren 6ra arte, aste osoan euskerearen aldeko ekitaldiak egongo dira. Gurasoen-tzako motibazio eta konzientzia-zino saioakaz hasi ziran Areatzan. Paula Kasaresek berbaldi bi emon ebazan umeen hizkuntza portae-ran gurasoen eraginaren gainean; bata euskeraz eta bestea gaztelaniaz. Hurrengo egunean, Iban Gortazarrek euskereak Areatzan bizi izan dauan eboluzioaren gainean egingo dan barriketaldia bideratuko dau 19:00etan, hainbat billaroztarrek kontauko dabez euren bizipenak kafea eta pastak hartuz. Abenduaren 2an, Toni La Salek *Ipuin Lapurra* umeentzako txotxongilo ikuskizuna eskeiniko dau udaltxeko Areto Nagusian 17:30ean.

Euskerearen Egunean ekitaldia egongo da plazan. 17:00etan hasiko da eskolako LH 6. maila eta Institutuko DBHko ikasleen bertsoakaz. Gero pankarta bat egin, eta Pirritx eta Porrotxen "Eskuetan" koreografia jantzatuko dabe gura daben guztiak. Amaitzeko Guraso Elkarteak txokolatea prestatuko dau.

Hurrengo egunean, Taberna Ibiltaria izango dogu. Izan be Areatzako Kantuzaleak herritarraz batera, kantuan ibiliko dira kalez kale, arrastiko zazpiretatik aurrera Motxonetik hasita. Ondoren kontzertua egongo da Gaztetxean.

Zapatuan, Arkaitz Estiballes eta Fredi Paiagaz, Errefrau Poteoaren hirugarren edizinoa jokatuko da. 19:00etan hasiko da Gaztetxean eta Hagina, The Quiet Corner, Gau Argi eta Motxo tabernetatik pasau ostean, finala Gaztetxean izango da. Errefrau gehien asmatzen dabezanentzat sari bi dagoz: Hotel Balneario Areatzan zirkuitu termala eta bazkaria, eta bigarren sari moduan, 50 euroko otzarea.

Zineak zaratuko dau Areatzako Euskerearen Egunaren inguruko astea abenduaren 6an. Umeen-

tzako pelikula bat, *Unibertsola-riak munduaren ertzaren bila*, arrastiko 16:30ean eta 18:30ean nagusientzat beste bat botako dabe udaltxeko Areto Nagusian. *Loreak* film arrakastatsua izango da bigarren hau.

Artea

Artean, hormairudi bat ipiniko dabe plazan eta bertan herriko alkarteak eta norbanakoak euren euskereagazko konpromisoa idatziko dabe. Ondoren, egunari jaigiroa emoteko karaoke herrikoia eta txokolatea danontzat. Umeak olgetan egin dagien, ludotekea kalera aterako da.

Udalak jentea animau gura dau "euskeraz bizi gura dot" kamisetea jantzerata.

Dima

Diman kantuz ospatuko dabe Euskerearen Eguna. Arratiako 401 kantu zahar batzeako desafioa bota eban Udalak eta Euskerearen Eguna baino lehenago bialdu behar ziran kantuok. Abenduaren 3an, kantu honeek kantetako, kantu ibilbidea egingo dabe seiretan Landaburutik hasita. Zazpiretan frontoi txikan ekitaldi nagusia egongo da.

Igorre

Igorren hitzarmena sinatuko dabe herriko kultur eta kirol alkarte guztiak, alkarteetan euskerearen presentzia eta erabilera sustatzeko. Sinatze ekitaldia Kultur Etxeko Lasarte Aretoan izango da. Sinatu aurretik, iluntzeko 20:00etan, musika zuzenean, *Euskerea eta gu* igorretarrak egindako esketak eta *2011-2015 Alkarteak Bide-lagun* bideoa ikusteko aukerea egongo da. Hitzarmena sinatu ondoren, kopautxoak. Haurtzandegi zerbitzua be eskeiniko da.

Enaik eta Axularrek be ekintzak antolatu ditue gazteen artean euskerearen erabilera bultzatzeko. Holan, 19:00etan "Arratiako gazte euskaldunen euskereagazko jar-kerak" izeneko proiektua aurkeztuko dau Andoni Ariznabarretak Axular Herriko Tabernan. Gaueko 21:00etan Herri oihua taldearen

euskeraren Nazioarteko Eguna
-ABENDUAK 3-

19:30 Mendi lasterketa mahai-ingurua
ondoren, argazki erakusketa
Jubilatuena gaineko aretoan
Ganzabal Mendi Taldearen edukak Maite Maiora Aritz Egea

Izan zaituz Berbalagun!
Lemoako bideoaren aurkezpena
KONZERTU AURRATIK #lotsarikgabe praktikatu gurekin

Inun
21:00
Jubilatuena tabernan

EUSKERAZ EGITEAK SARRA DAUKA
Merkataritza kanpainako zozketa
KONZERTUAN BERTAN

Jende txiki askok, leku txiki askotan, gauza txikiak eginez, herria alda dezake

harro bizi euskeraz


kontzertua egongo da.

Lemoa

Lemoan, Ganzabal Mendi Taldeak mendia lasterketen gaineko mahai-ingurua antolatu dau 19:30ean, Maite Maiora eta Aritz Egeagaz eta ondoren argazki erakusketea. Gero, *Izan zaituz Berbalagun* Lemoako bideoaren aurkezpena egingo da Jubilatuen Etxeko goiko aretoan. Berbalagun egitasmoan, hamaisei lemoaztar batzean dira astero aisialdian euskeraz berba egiteko eta holan euren hizkuntz ohiturak aldatuteko. Egitasmo honetan jentte gehiagok parte hartzera animau gura dau bideoak. Ondoren, gaueko 21:00etan, Mikel Inunziaga "Inun" musikariak kontzertua eskeiniko dau Jubilatuen Tabernan. "Euskeraz egiteak saria dauka" merkataritza kanpainako zozketea be egingo dabe kontzertuan.

Zeberio

Zeberion zemendiaren 29an ospatu eben Euskerearen Eguna. Umeak izan ziran protagonista eta antxinako jokoak ezetuteko aukerea izan eben.



Arratiako altxorra

Jolastuz ikasi
Oka + tribial + Arratia = Arratiako altxorra
Gabonetarako opari orijinala

Erosteko

Artea: Herriko Taberna. **Igorre:** Estankoa eta Zazpi Haizetara. **Zeanuri:** Itsasne Txutxeak. **Areatza:** Gauzak opari denda. **Bedia:** Mari Cruz Janari denda **Lemoa:** Foto Tibur eta Marigorringo Txutxeak. **Dima:** Axlor Taberna.

TXIRRINDULARITZEA

Balantze ona eta proiektu ugari Muriasek, lehenengo urtea bete dauanean**Erredakzinoa**

Murias Taldeak, kategoría kontinentaleko Arratia Ziklista Elkarteko talde profesionalak, urtebete egin dau. Juan Mari Zurinaga AZEko presidenteak sano ondo balorau dau urte honetan egindako lana. Izan be, 72 lasterketatan hartu dau parte eta lasterketarik irabazi ez arren, marka onak egin eta Mendiko sariak, esprint-ak eta podium asko lortu ditu.

Datorren urteari begira Euskadi Basque Country Murias Taldeak oinarria sendotuten jarraituko dau, 2017an maila bat igon eta Euskal Herriko Itzulia, Espainiakoa edota Donostia-Donostia klasikoan parte hartu ahal izateko. Eta 2018an, Frantziako Tourrean parte hartzeako asmoa aitortu deutso Zurinagak BEGITURI.

Txirrindularitzako talde profesionalak hiru mailatan jokatzeko dabe eta Murias hirugarren mailan dago, maila kontinentalean. Bigarren maila, Kontinental Profesional deitzen da, eta txirrindularitzako lehenengo maila UCI Pro Team izenekoa da. Maila bakotzeko taldeak, maila horretako lasterketetan hartu daiteke parte.



Juan Mari Zurinaga, Jon Odriozola eta Murias taldekoak.

Maila bat igoteko aurrekontua laukoztu

Hirugarren mailatik bigarren mailara pasetako, taldeak 20 txirrindulari izan behar ditu. Muriasek 15 ditu momentu honetan. Eta askoz diru gehiago behar dau taldeak bigarren maila horretan. Aurreko tenporaldia "kostau bajaku miloe erdi inguru, igoten danean taldea kategoría profesionalera miloe t'erdi edo miloe bi" behar izango dira AZEko presidentearen arabera.

MENDI DUATLOIA

Zeanuriko I. Mendi Duatloia abenduaren 12an**Erredakzinoa**

Urrietan Igartzan hasi, eta hegoaldeko zein iparraldeko lupetzak zapaldu ostean, Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituak Zeanurin emongo deutso amaierera tenporaldiari.

Egun osoko jaia antolatu dau Joko Alaik zapatu horretarako. Goizean 11:00etan umeak egin-

go dabe duatloia, adin bakotzerako egokitua, hasi 3 urtetik eta hamasei urterarte. Eguerdian, 12:00-14:00ak artean herriko frontoian pasta bazkaria izango dabe bertaratuten diranak eta 15:00etan helduen duatloiak urtengo dau. Handik aurrerakoak trikopoteoa, afaria, sari banaketea, diskofesta eta gainetikoak izango dira.

Proba herrikoia antolatu dabe, "edozeinek egiteko modukoa". Zeanuriko Plazan galapan hasi eta San Juanetik San Justora igaro ostean barriro Plazara bajatuko dira kirolariak 7,32 km. egin eta gero. Han bizikletak hartu eta erruda birren gainean Soloetatik Makaztuirra helduko dira eta handik buelta pare bat emonda gero Alzustatik Plazara hurreratuko dira 15,33 km. egin eta gero. Azkenengo arinekaldia, 1,22 km.koa, herri ingurutik egingo dabe.

Mendi duatloia bultzatu, kirol herrikoia ate bat zabaldu, naturagazko lotura eta errespetua landu, auzolana indartu, gazteenengan kirola sustatu eta herri "txiki" eta auzoak ezetutera emon gura dauz Joko Alaik proba honegaz. Horreek diralako, 2010ean sortu zanetik Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituaren helburuak. Orduetik hona Lizarra, Amurrio, Biriari, Amasa, eta beste hamaika txoko eta bazter arakatu ditue kirolariak. "Kate horrerik tiraka dator, abenduan 12an, Zeanurin egingo dan mendi duatloia" dinoe antolatzaileak. Joko Alaik antolatu dau, Zeanuriko Udalak lagundu eta "herriko merkatari zein herritarrak kate horren begi ugari lotuten lagundu dabe, auzolanean, helburu nagusietako batek dinoan legez".

Zeanuriko mendi duatloia egin gura dauanak www.mendiduatloia.com webgunean emon behar dau izena, online bidez bezperara arte egongo da horretarako aukerea.

ZAINDU GURE LURRA**Materia organikoa konpost bihurtu**

MATERIA ORGANIKORAKO
POLTSA BIODEGRADAGARRIAK
AMAITZEN JATZUZANEAN,
HARTU EIZUZ DEBALDE
ZURE UDALETXEAN
EDO MANKOMUNITATEAN

EDUKIONTZI MARROIAN
EDO AUTOKONPOSTAJEAN
IZENA EMON GURA BADOZU, DEITU
94 631 17 17
TELEFONO-ZENBAKIRA
EDO JO MANKOMUNITATERA



Konpostajearen bideak.
Zuk erabagi.



ZIKLO-KROSA

Igorreko Ziklo-krosa barriro Munduko Kopako proba izateko beharrea dabil AZE

XXXIX ZIKLO KROSS IGORRE
2015ko ABENDUAK 6 DICIEMBRE

09:00
40, 50, 60 MASTERRAK
MASTER 40, 50, 60

09:50
30ko MASTERRAK
MASTER 30

10:45
KADETEAK (Mutu eta Neskak)
CADETES (Masculino y Femenino)

11:30
SARI BANAKETA
ENTREGA DE PREMIOS

12:00
GAZTEAK
EMAKUMEAK (Elite eta gazteak)
JUNIOR
FEMINAS (Elite y Junior)

13:00
ELITE eta 23 AZPIKOAK
ELITE y SUB 23

14:15
SARI BANAKETA
ENTREGA DE PREMIOS

www.ziklokrossigorre.com

Logos: uci, BBK, Zabalgarbi, Deia, MURIAS, GRUPOTUA, IBERDROLA, eitb, GARBIXER, SIFA DFB, POWERICE.

Igorreko Ziklo-kroseko kartela.

Erredakzioa

Espainiako Kopako probetako bat izaten jarraituko dau aurten Igorreko XXXIX. Ziklo-krosak, baina datorren urtean, berrogei urte beteten dituan, barriro be Munduko

Kopako lasterketea izatea gura dabe Arratiako Ziklista Elkartekoak (AZE) eta hasi dira horretarako beharrea. Bitartean, abenduaren 6an Igorreko Ziklo-krosaren 39. edizioa jokatu da eta Olabariko zirkuituan bertoko eta

kanpoko ziklo-krosariak lehiatuko dira urteroko zita garrantzitsu honetan. Aurten lehenengoz, andrak eta gizonak sari bardinak jasoko dabez.

Goizeko bederatziretan hasita eta ordu bi t'erdiak aldera arte, kategoria guztietako ziklo-krosariak ikusteko aukerea egongo da Igorren. Espainiako Koparako puntuagarria da lasterketea eta Estatu osoko taldeak parte hartzea espero dabe antolatzaileak. Baita Arratiakoak be. "Arratiako batzuek lasterketa guztietan hartzean dabe parte, master mailakoak, batez be. Kadeteak be egongo dira eta Murias taldeko baten bat be bai, igazko moduan. Gure taldea beti egon da Igorreko Ziklo-krosean" azaldu deutso begituri Juan Mari Zurinaga AZEko presidentek.

Master kategorietako lasterketak emongo deusie hasikerea Igorreko ziklo-kroseko aurtengo edizioari. Elite mailako gizonzkoak eta 23 urte artekoak ordubetetan neurtuko dira; Elite mailako andrak eta Gazteak, hamabietan.

Sari bardinak

Igaz, Naia Alzola Dimako ziklo-krosariak Igorreko Ziklo-kroseko antolakuntzeari, andrazkoentzat urtekerara propioa eta sari bardinak eskatu eutsazan. Orduan ez zan holan izan eta aurten be, andrak euren urtekerara propioa eukiko ez daben arren, sariak bardinak izango dira. "Ehuneko ehunean, bardinak izango dira andra eta gizonen sariak. Hori bardindu dabe, sikan. Igaz eskatu genduan (Federazioan) eta kasu egin deuskue" dino Zurinagak.

Barriro Munduko Kopako lasterketea izatea helburu

2011ra arte, Igorreko Ziklo-krosa Munduko Kopako lasterketea zan. Gero, kategoria horretako lasterketa antolatuteko behar beste diru ezin ebela batu eta Erroma hasi zan karrera hori antolatuten. Baina Erromak 2014an itxi egin eutsan ardura horrerri, eta UCIk, barriro be, Igorreri eskeini deusala Munduko Kopako lasterketea dino Zurinagak. Datorren urtean, Igorreko Ziklo-krosak 40 urte beteko ditu eta urteurren "interesgarria, fuertea eta nazinoartekoa" gura dabe antolatzaileak. Eta hasi dira beharrea.

Igorreko Ziklo-krosa, Munduko Kopako lasterketea zan gizonzko Elite eta 23 urte arteko kategorian, eta Open moduan egiten zan; hau da, kategoria bientzako lasterketa bakarra eginaz. Baina Munduko Kopak bakotzak bere lasterketea izatea eskatuten dau eta berreskuratu ezkeru, Munduko Kopako lau lasterketa egin behar izango dira: Elite (gizonak) lasterketa bat, 23 urte arteko gizonak beste bat; Elite eta 23 urte arteko andrak beste bat, eta Gazteak (Junior) mailako mutilak, laugarrena.

Lehenko moduan, arazoa finantziatzen da. Hori dana beteteko 140.000 edo 150.000 euroko aurrekontua behar da. Horregaitik, Eusko Jaurlaritzagaz batzean hasi da AZE eta presidentea baikor agertzen da. "Eusko Jaurlaritzara interesauta dago, ze Euskadiren izena kanpora eroateko tranpolin moduko bat da Igorreko Ziklo-krosa. Mundu guztiko telebistetan agertzen da, batzuek zuzenean emoten dabe eta beste batzuek zatika. Guztira 12-15 herrialdetan emoten dabe". Eta Eusko Jaurlaritzaren babesagaz, enpresen laguntzea lortzea be errezagoa dala dino.

FUTBOLA

Andrazkoak hiru puntu, gizonzkoak bakarra



Urbieta futbol zelaia.

Erredakzioa

Arratia futbol taldeko andrazkoak 3 puntu lortu dabez atzen bi partiduetan, gizonzkoak ostera bat.

Andrazkoak hirugarren postuan dagoz orain, Bizkerre liderrarengandik sei puntura eta bigarren postuan dagoan Gasteizko Neskak taldearengandik hirura. Arratiak, zemendiaren 29an Elorrioren jokatu eban atzen norgehiagokan lortu zituan hiru puntuak Elorri taldeari 0 eta 2 irabazi ostean. Aurreko astean etxean jokatuak partidua galdu egin eben 2 eta 3 Berriotxoaren taldearen kontra. Hurrengo partidua Igorreko Urbietan jokatu dabe Aurrera Vitoria B taldearen kontra.

Gizonzkoak ostera taula erdian kokatuta dagoz atzen bi partiduetan puntu bakarra lortu eta gero. Abantoren kontra zemendiaren 28an bana bardindutako partiduan lortu eben puntua. Hurrengo partidua Igorren jokatu dau Arratiak Sondikaren kontra.

Hotel Areatza
★★★ **Balneario**

Olentzerotarako oparia topetan?

Aukeratu gure **Opari-bonoak**

* Masajeak, Zirkuitu termalak, Gastronomía bonoak, Hidromasaje bainu bikotxak, Estalgiak, Fisioterapia, Hotela+bainuetxeko bonoak

28€tik aurrera

Informazioa eta erreserbak: info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705
www.hotelbalnearioareatza.com
Zure ospakizunetarako menu bereziak.

Facebook icon

ERAKUSKETEAK

Arratiako tranbiaren erakusketeak arrakasta handia dauka Bilbon**Erredakzinoa**

Arratiako tranbiaren erakusketea Foru Liburutegian egongo da abenduaren 29ra arte, luzatzen ez badabe behintzat. Izan be, jente asko hurreratu dala bertara, eta leitekena dala luzatutea dino Montserrat Petralanda Foru Liburutegiko Argitalpenen eta Kultura Jardueren Arduradunak.

Arratiako tranbia desagertu zaneko 50 urte bete dira 2015ean eta tranbiaren historia ezetutera emoteko Zertu kultur Elkarteak, tranbiagaz lotutako objektu, maketa eta irudiak jasoten dauzan erakusketea antolatu dau urtean zehar. 2015 hasi zanetik tranbiaren bidean egon diran herrietan

erakutsi izan da garraibide gogoangarriaren historia.

Katalogoa

Erakusketearen ibilbideari Foru Liburutegian emongo jako amaiera. Erakusketeak Foru Aldundiaren babesu dauka eta Aldundiak katalogoa argitaratu dau, erakusketako material guztiak eta gehiago jasoz. Papel dotorean eta argazkiz horniduta, besteak beste, tranbiaren hastapenak, ibilbidea, tranbiabidea, tailerrak, kotxetegiak, langileak, merkantzien garraioa, bidaiarien garraioa, tranbiaren hiltoria eta agurra azaltzen ditu. Jon Urutxurtu zeanuriztarra izan da erakusketearen komisarioa.

JANTZEA

Arantzartek egindako CDa, 40 urteotako oroigarri**Erredakzinoa**

Igaz berrogei urte bete ebazan Arantzarte Dantza Taldeak.

Urteurreneko jaia eta berrogei urteetako bideo eta argazkiakaz, CDa kaleratu eban taldeak. Bertan, jantza taldearen historia jasoten

da eta partaideentzako oroigarri moduan sortu eben. Dana dala, interesatuta dagoan edonork erosi daike, aldeztu aurretik eskatu ezker.

Eskatutako eta jasoteko Arantzartekoakana jo behar da. Arantzartekoak Igorreko Kultur Etxeko jantza gelan egoten dira astelehenean, eguaztenean eta barikuetan 20:00etatik 21:00etara.

Ikastaroak

Berrogei urteren ostean, Arantzartek bizi-bizi jarraitzen dau eta aurten be jente barria sartu da taldean. Ikasten hasi gura izan ezker, eguaztenean hurreratzea baino ez dago. Eguaztenean, zazpiretan, aurten hasi dan jentea egoten da. Taldekoak jentea animau gura dabe eguazten baten hurreratu eta jantzan hastera.

IKASTAROAK

Bertso, txalaparta eta zirku tailerrak Kiñu Gaztetxean**Erredakzinoa**

Igorreko Kiñu Gaztetxean, bertsoan eta txalaparta jotzen ikasi daiteke. Abenduaren 1ean hasiko dabe bertso eskolea, zerotik hasita, inoz bertsoan egin ez dabenentzat. Eskolak martitzenetan izango dira arrastiko zazpiretan. Txalaparta ikastaroa barriz, hamabostean behin da, eguaztenean 19:30ean eta hurrengo saioa hilaren 10ean izango da. Dana dala, lekua dago eta izena emon daiteke bertan. Ikastaro honeetan parte

hartzeako, aitatutako egun eta orduetan bertara hurreratzea nahikoa da. Ezpabere, eizukinu@gmail.com helbidera idatzi leiteke.

Dinglizke zirku taldea be

hasteko asmotan dagoala dinoe Gaztetxeok, baina oraindino taldea sortzeako dagoala. Taldea sortu ezker, zirku tailerra abiatuko dabe Gaztetxean. Izena helbide elektronikora mezua bidalita emon behar da.

Jiu-Jitsu erakustaldia

Umeak Jiu-Jitsu arte martzialaren erakustaldia egingo dabe abenduaren 4an Kiñu Gaztetxean 18:30ean.



Txalaparta tailerra eguaztenean izaten da.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

begitu
arratia ubide zeberio

13 urte eta gehiago

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

MUSIKEA

Jose Ramon Galarza da Arratiako Koruko zuzendaria



Erredakzinoa

Hirurogeta lau urte Santa Agedako koplak kantetan emon ostean, Arratiako Korua zuzendari barrik geratu zan. Arazoa hedabide guztietan agertu eta gero, Koruko Zuzendaritza Batzordeak hamar hautagairen artean aukeratu behar izan eban zuzendari barria. Zemendiaren 21ean, Jose Ramon Galarzaren zuzendaritzapean, Arratiako Korua entseguak egiten hasi zan. Datorren urteko zezeilaren 4an, Arratia eta Bilbon zehar Agate Deunaren koplak kantetan ospatuko dau bere 65. urteurrena.

Igazko Santa Ageda bezperan, orduko zuzendariak korua itxiko ebalu emon eban jakitera. Koruko Zuzendaritza Batzordea Arratian hasi zan zuzendari bila baina "lan arazoak" zirala eta, bat be ezin izan zan geratu. "Denporea aurrera

joiala eta gauzea gero eta gatxago egoala ikusita, horren barri hedabideetara emotea ebatzi zan eta ideak arrakasta handia euki eban" azaldu deutso BEGITU Ana Sierrasumaga korukoak.

Holan, Zuzendaritza Batzordeak koruak eta orkestrak zuzentzen esperientziadun hamar kurrikulu "zoragarri" jaso eta euren artean ebatzi behar izan eban. Jose Ramon Galarza aukeratu eban koruko zuzendari barria izateko.

Jose Ramon Galarza

Jose Ramon Galarza Bilbokoa da eta Haron (Errioxa) bizi da aspaldi honetan. Bera aukeratzeko errazoi bat, jubilaute dagoala da. Izan be, beharra dala eta, denpora faltan ez egotea baloratu egin dau Zuzendaritza Batzordeak. Koruak zuzentzen esperientzia be badauka Galarzak.

MUSIKEA

Anne Etchegoyen eta Biotz Alai Abesbatza Igorren



Anne Etchegoyen.

Erredakzinoa

Anne Etchegoyenek eta Biotz Alai Abesbatzak, abenduaren 12an kontzertua eskeiniko dabe Igorreko Kultur Etxean, arrastiko zortziretan.

Anne Etchegoyen Donapaleu herrikoa da eta arrakasta handia lortu dau euskeraz, frantsesez eta gaztelerez kantetan. *Les Voix Basques* lanagaz urrezko diskoa lortu eban. Mikel Laboa, Xabier Lete eta beste klasikoaren abestiak eta berak sortutakoak kantetan ditu hainbat generotako doinuakaz nahastuta. Zortzi urteagaz hasi zan bere herriko abesbatzan kantetan eta Frantzia, Argentinan edo Estatu

Batuetan abestu dau arrakasta handia lortuz.

Biotz Alai Abesbatza

Biotz Alai Abesbatza 1923 urtean sortu zan Algortan. Lehenengo zuzendaria Manuel Gainza izan zan eta haren ostean bere semea Juan Jose. 1966 urtean, kanpora begira jarri zan abesbatza, eta lehiaketa, emonaldi, koru-alarde eta kantu birak egiten, eta diskoak grabetan hasi zan. Sari asko jaso ditu harrezkeroztik eta 7 disko grabatu ditu.

Gaur egun 40 gizonetako osotuten dabe abesbatza Josu Soldevillaren zuzendaritzapean.


MUSIKEA

Vicent Zaragoza perkusionistek kontzertua eskeiniko dau Areatzan

Erredakzinoa

Abenduaren 12an, Areatzako Kirol eta Kultura Batzordeak (AKKB) antolatuta, Vicent Zaragoza Bilboko Orkestra Sinfonikoko perkusino bakarlariak kontzertua eskeiniko dau 19:30ean udal-tereko Areatza Nagusia. Zaragoza Areatzan bizi da orain dala urtebete baino gutxiago.

Kontzertu hau, "Musika bakarrean" zikloaren barruan dago eta hasikerea emongo deutso zikloari. Zikloan, lau kontzertu antolatu ditue momentuz AKKBkoak. Hilean behin izango dira. Bigarren kontzertua, Leire Moreno BOSko biola jotzaileak emongo dau; hirugarrena, Mikel Albistur oboe jotzaileak eta laugarrena, Xabier Kalzada flauta joleak.



DUNBA

Gure ortua

Zeberioko Zubialde eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Zeberioko Zubialde eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak gara. Eskolearen inguruan, atzekaldean, gure ortua dago. Gitxi gorabehera 38 m² ditu. Orain dala hiru urte hasi ginan ortua landuten eta aurten be horretan jardungo dogu.

Ortua proiektu desbardinatan erabili izan dogu, igaz sukaldaritza proiektuagaz adibidez. Aurten barriz Erasmus-eko *Eat wise* proiektuari lotuta dago.

Proiektuaren atal bat janari osasungarria danez, sasoi honetako haziak erein doguz. Horretarako eskolako guraso bat etorri jaku laguntzen. Oraingoz

babazabalak eta berakatzu baino ez dogu erein. Eta bagoaz lantzean behin ikusten ematu diran ala ez. Oraindino gauza gitxi ikusi ahal dogu.

Ereiteko, lurrak be sasoiaren egon behar dauela esan euskun, ez oso lehor ez oso heze. Lurra ondo dagoan jakiteko atxurra sartu golpe batez, lurra jausi barik atxurrean itsatsita geratzen bada oso heze dagoala esan gura dau, hautsa sortzean bada, oster, idorregi dago. Heze badago hoba dogu ez zapaltzea lupetza sortuko da eta gero lehortzen danean dana gogortuta geratuko dalako.

Harri handiak hobe da kentzea bestela atxurra eta errotabatorrak apurtu ahal dira. Baina harri txikiak ez doguz zertan kendu, landareentzako mineral asko daukiez eta zuztarren bidez



Ikasleak ortuan.

xurgatu egingo dabez.

Urtean zehar beste produktu batzuk erein edo landatuko doguz, sasoiaren sasoiko: porruak, tomateak, piperrak, letxugak, kalabazak, azalorea...

Igaz be hasi ginan konposta egiten eta aurrera doa ortuari lotua. Egunero aprobetxetan doguz sukaldetik ateraten diran hondakinak, azalak, azenarioak... zati handiak diranean txikitu egiten



doguz ontzian sartu baino arinago. Eta lantzean behin eguraldiak ixten deuskunean orbela batu eta gorde egiten dogu behar dogunean konpost ontzira bota ahal izateko.

Behetako atetik ikusi daiegun konposta ondo dagoala emoten dau, eta behar bada aurten erabilteko aukerea izango dogu.

Baita esan behar dogu zemendiaren 29an Zeberion azoka izan dogula eta bertan etetik ekarritako herriko produktuak salgai egon dirala.

AGENDEA

ABENDUAK 1
AREATZA

19:00etan, "Billarozarren bizipenak" barriketaldia kafea eta pastakaz. Udaletxeko Areto Nagusian.

LEMOA

19:00etan, Sortuk antolatuta, Igor Melxor idazle eta analista politikoaren *Gestión a la vasca* eta *Caso Bidegi ¿A dónde ha ido a parar el dinero?* liburuen aurkezpena. Jubiladuen Etxeko goiko aretoa.

IGORRE

18:30ean, Gabonetako Olerntzero prestatzeko batzara Kultur Etxean.

19:00etan, bertso eskolea zerotik hasita Kiñun.

ABENDUAK 2
AREATZA

17:30ean, Toni La Salen *Ipuin Lapurra* umeentzako txobongilo ikuskizuna udaletxeko Areto Nagusian.

ABENDUAK 3

Euskerearen Nazioarteko Eguna.

ARANTZAZU

17:00etan, Eleiz Portaleko Gazte Asanbladak herriko umeakaz euskalkien mapea egin; 17:30ean, sari banaketea; 18:00etan, txokolatea. Frontoian.

AREATZA

17:00etan, ekitaldia plazan. Bertsoak, Pimix eta Porroben "Eskuetan" koreografia eta txokolatea.

ARTEA

17:00etan, konpromisoen hormairudia; 18:00etan, karaoke herrikoa; 19:00etan, txokolatea.

BEDIA

18:00etan, Gabon Txartelen Lehiaketako sari banaketea. Liburutegian.

DIMA

18:00etan, kantu ibilbidea; 19:00etan ekitaldi nagusia.

IGORRE

20:00etan, Igorreko kirol eta kultur alkarteak eta Igorreko Udalak hitzarmena sinatu. Musika zuzenean; *Euskera eta gu* edade guztietako igorretarak egindako esketak, 2011-2015 *Alkarteak Bidelagun* bideoa pantaila handian, hitzarmena sinatu eta ostean pintxoak.

19:00etan, Emaik eta Axular Herriko Tabernak antolatuta, Andoni Ariznabarretak "Arriatioko gazte euskaldunen euskereagazko jarakerak" izeneko proiektua aurkeztuko dau Axular Herriko Tabernan; 21:00etan Herri oihua taldearen kontzertua.

LEMOA

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, "Mendi Lasterketak" mahai-ingurua Maite Maiora eta Aritz Egeagaz, eta ondoren, argazki erakusketea Jubiladuen Etxeko goiko aretoa; *Izan zaitz Berbalagun* Lemoako bideoaren aurkezpena; 21:00etan "Inun"en kontzertua Jubiladuen; "Euskeraz egiteak saria dauka" merkataritza kanpainako zozketea kontzertuan bertan.

ZEANURI

Jubiladuen Eguna. 13:00etan, mezea San Isidro eleizan; 14:15ean, bazkaria Jubiladuen tabernan.

18:30ean, Jone Miren Hernandezen berbaldia "Aitarena? Amarena? Zeinena da euskararen etxea?". Kultur Etxean.

ABENDUAK 4
AREATZA

19:00etan, Taberna Ibiltariagaz kantuan kalez kale Areatzako Kantuzaleen laguntzeagaz. Motxonetik hasita. Ondoren kontzertua Gaztebean.

DIMA

19:30ean, "Etxean gura doguz" presoen aldeko kontzertuzinoa Plazan.

IGORRE

18:30ean, Jiu-Jitsu erakustaldia. Kiñun Gaztebean.

ABENDUAK 5
AREATZA

19:00etan, III. Errefraur Poteoa Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia bertsolariakaz. Gaztebeetik hasita.

LEMOA

Hilaren 8ra arte, Ganzabalek urtekerea Pirinioetara. Armotoa (1375 m.)-Ardibide gaina (1309 m.); Otsogorrigaia (1920 m.); Añelarra (2357 m.)-Añamendi (2507 m.); Ezkaurre

(2045 m.)-Kañadaxiloa (1769 m.).

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Hotel Transilvania II* 3D-an emongo da filma; 22:00etan, zinea *Un otoño sin Berlin*. Lasarte Aretoran.

ABENDUAK 6
AREATZA

16:00etan, umeentzako zinea *Unibertsolariak munduaren ertzaren bila*; 18:30ean zinea *Loreak*. Udaletxeko Areto Nagusian.

IGORRE

09:00etan hasita Igorreko Ziklo-krosa.

17:00etan, umeentzako zinea *Hotel Transilvania II* 3D-an emongo da filma; 19:30ean, zinea *Un otoño sin Berlin*. Lasarte Aretoran.

ZEANURI

Santa Lutzijaiak Altzusta auzoan.

ABENDUAK 8
IGORRE

19:00etan, bertso eskolea zerotik hasita Kiñun.

ABENDUAK 10
ARANTZAZU

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna. 12:00etan kontzertuzinoa plazan; 17:00etatik 19:00etara, Bardintasan autobusa plazan.

IGORRE

19:00etan, Mikel Otero eta Julen Zulaikaren eskutik, TTIParen inguruko berbaldia Kultur Etxean.

19:30ean, Txalaparta tailerra Kiñun Gaztebean.

LEMOA

17:30ean, Arriatioko Musika Eskolako akordeoi, piano eta trikitibako ikasleen emonaldia Jubiladuen Etxeko goiko aretoa.

19:00etan, Joseba Riosen berbaldia "Arlanpeko dama, Euskal Herrian dagoan emakumearen lehenengo arte-irudia" Jubiladuen Etxeko goiko aretoa.

ABENDUAK 11
AREATZA

19:00etan, aurrekontuetako bigarren batzar orokorra. Udaletxean.

BEDIA

17:00etatik 19:00etara, Bardintasunerako Gunearen autobusa. Plazan.

19:00etan, Erregeen Kabalgatan parte hartzeako batzara. Eskoletan.

IGORRE

19:30ean, *Bida Bizitzen* zirku eta txobongilo ikuskizuna Izaskun Ruedaren eskutik. Kiñun.

LEMOA

20:00etan, Ahoztar Zelaietaren *Kutxabank: el saqueo de Euskal Herria* liburuen aurkezpena Gaztebean.

ABENDUAK 12
ARANTZAZU

10:00etan, autodefensa ikastaroa Kultur Gunean.

AREATZA

Uparan Jubiladu eta Pensinodunen alkarteko Bazkidearen Eguna. Hildako bazkideen aldeko mezea eta omenaldi-bazkaria Hotel Balneario Areatzan. Ondoren Merlin magoa eta jantzatze musikera.

19:30ean, "Musika Bakarrean" zikloa. Vicent Zaragoza. Udaletxeko Areto Nagusian.

IGORRE

08:30ean, San Kristobaleko XIII. Mendi Martxea. Izena hilaren 6a orduko emon behar da. 5 euro mendia marxea, 10 euro marxea eta babajana. Inbaubizkar Kultur Elkartek antolatuta.

Elkadura Subirautzaren V. Topaketa. 09:00etan, Igitieko bame hausnarketa saioa. Urteko balantzea eta datorren urterako plangintzea; 14:00etan bazkaria. Ondoren, urteko balantzea eta datorren urterako plangintzea; 19:00etan, kontzertua. Kiñun Gaztebean.

20:00etan, Anne Etchegoyen eta Biotz Alai Abesbatza. Lasarte Aretoran.

ZEANURI

15:00etan Zeanuriko I. Mendi Duatloia. Ekintzak egun osoan zehar.

ABENDUAK 13
AREATZA

09:30ean, Lamino Mendi Taldeko urtekerea Guraso alkarteagaz batera Turroi Eguna ospatuten. Eleiz portal aurrean.

Parkebeak antolatuta, berbaldi-tailerra: "Ukendak eta xaboiak" Kukufraka alkartearen laguntzeagaz.

IGORRE

10:00etatik 15:00etara Eizu Change Kiñun Gaztebean.

17:00etan, umeentzako zinea *Par, sekula betirako bidaia*; 19:30ean, *Truman* Lasarte Aretoran.

ZEBERIO

19:30ean, zinea *Chavela Vargas*. Plazako ermitan.



Bizkaiko arte sortzaileen lanak ikusgai

Ertibil-Bizkaia erakusketea, abenduaren 1etik 13ra egongo da Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoran. Erakusketa hau ikusteko bisita gidatuak egongo dira, hilaren 10ean euskeraz eta 11n gaztelaniaz, arrastiko 19:30ean.

Ertibil Bizkaia gure lurralde historikoko arte-sortzaile barrien urteroko hitzordua da. Euren lana erakusten dabe bertokoak eta jatorriz Bizkaikoak izan ez arren, artelana Bizkaian egiten dabenak. Programa hau Aldundiko Kultura Sailak antolatuten dau Bizkaiko 9 udalerriren laguntzeagaz; tartean, Igorre.

Programa honen bitartez, artearen atzen joerak erakusten dira. Izan be, artistak gizarte garaikideaz daukien ikuspegia erakusten dabe, abangoardiako joerak ikusgai eginaz.

arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

IRAKASLE BILA

Ume bategaz ingelesez berba egiteko nonoren bila gabiz. Interesatuak deitu 605 755 604 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Bogaboo-a eta heshaka zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

DANERIK

BEHAR BILA

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik. Grisel 678 104 166.

APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, baktotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarrean! Astean ordu biko klaseak,

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Anne Etchegoyen & Biotz Alai Abesbatzaren kontzerturako.

Bihotz Gorospe (Dima)
Mertxe Ortuzar (Zeanuri)



2 Igorreko Udalak emondako Timoteo Atutxa Petralandaren *Idatziak eta gutunak* liburua.

Mikel Iriondo (Dima)
Jon Intxaurbe (Zeanuri)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Besapeko. 2.- Bokala. Hegazti haragijale. Konsonantea. 3.- Behiak egiten dau. Bat erromatar. Paladioa. 4.- Abade. Alarau, intziri. 5.- Bilkura, batzar. 6.- Kide. Irrika. 7.- Edabe bat. Azken letrea. Atadian. 8.- Hamar erromatar. Gainalde. Uranioa. 9.- Asmau.

GOITIK BEHERA

1.- Besoetako ama. 2.- Mila erromatar. Askabide. Letra bat. 3.- Arsenikoa. Garau, bihi. Galioa. 4.- Itsasoko portu. Letra bat. Ordaindu barik. 5.- Bike. Izu. Iridioa. 6.- Berrogeta hamar erromatar. Enparantza. Erdiko bokala. 7.- Kezkatu.



Topau munduko zazpi hizkuntza.

Z	A	T	O	N	I	E	R	A	R
O	B	U	S	E	R	A	L	A	E
K	I	M	E	L	O	A	R	G	O
U	A	O	D	A	R	E	A	S	K
G	R	A	L	D	I	H	R	U	A
I	A	Z	E	N	K	U	E	F	R
T	B	R	O	A	O	R	I	A	E
U	I	T	X	R	E	B	R	E	I
S	E	L	K	E	B	E	A	R	N
L	R	G	A	I	I	S	G	E	A
H	A	S	E	N	E	R	N	O	M
N	I	K	E	A	Z	I	U	R	U
X	O	M	U	D	A	T	H	A	R
I	R	M	E	R	U	P	G	E	R
A	A	R	E	I	N	S	O	B	E

AKI MI KO

Ait ziber



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

ASEGURUAK
basolo Emaldi
Abokatuak
☎ 620. 57.86.04
@ aslerabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

MERKA LABELA-HARATEGIA
Etxeko produktioak
• Txerizozak
• Odoletzak
• Buzkantzak
• Saltzirak
• Hamburgesak
Arratiako produktioak
• Beseriko etxerak
• Urbiak
• Beseriko arraitzak
• Txarrikak
• Haritzak
• Geroiko fruta eta barazkiak

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOSKOLA
karneta eskuratzeko zain ordoraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unozulu@arratiakel.net

ARANTZA ARTETXE FERRERO

"Bizikletea orain dala hiru urte erosi neban"

Beharretik etxera heldu, zapatilak jantzi eta oinez zein bizikletan joaten da Arantza Artetxe. Aurten hasi da mendi duatloiak egiten eta denporaldia amaitutear dagoan honetan esperientziaren balantze ona egin dau. Kirola egiteak erlajau egiten ei dau dimoztarra. Halanda be emozinoa gustetan jakola aitortu deutso BEGITURI, zenbat eta lupetz gehiago, hobeto. Urri bigarreanean hasi zan Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitua, eta hamairu probaren ostean Zeanurin amaituko da abenduaren 12an.

Irati Urien**Non izan zan zure lehenengo duatloia eta zelako esperientzia izan zan?**

Igartzan izan zan, Beasainen. Oso gogor egin jatan, asko sufridu neban baina gauzatxo hori gelditu jatan... "hobeto egin ahal dot eta hobeto egin gura dot". Helburua hurrengoan atzenengo ez gelditutea izan zan. Bigarrenera joan nintzan orduan, Ibarra izan zan. Hortik aurrera bederatzia egin nebazan jarraian eta hamargarrean para egin nintzan minakaitik. Aurtengo zirkuituan hamalau proba dagoz.

Zelan hasi zinan mundu honetan?

Bikotearen erruagaitik (dino umorez). Atzen urteotan mountain bike egiten ibili naz eta aurten hauxe egiten animau naz. Zeozer barria probetearren. Urri lehenengo hel-

du zan eta bikoteak probetako komentau eustan. Probau neban eta bat, bi, hiru, lau... bederatzira arte. Modalidade hau ez da bape ezaguna ondino. Aurtengoa hirugarren edo laugarren urtea izango da zirkuitu bat dagoana. Lehen hamar proba inguru baziran aurten hamalau dira.

Zer da lasterketan egin beharrekoa?

Galapan hasten gara, 5-7 kilometro; gero, bizikletea hartu eta 12-17 kilometro eta amaituteko, barriro be 2-4 kilometro galapan. Urtekeran hasten gara eta arineketako zirkuitua egiten dogu, boxes-etara bueltetan garanean galapan egiteko zapatilak itxi, bizikletakoak hartu, kaskoa jantzi eta behin bizikletea hartuta martxan; zirkuitua egin eta barriro be barrura, bizikletea eta kaskoa itxi, oinetakoak aldatu eta ekin helmugara ailegau arte. Arineketan eta bizikletan, aldaketa hori, gogorra izaten da hanketarako. Gainera mendian eta

mendiko bizikleteagaz gatxago.

Arratiarrak badabiz mendi duatloietan?

Badagoz batzuk. Aingeru Artetxe, Joseba Gortazar, Josu Amuriza, Mikel eta Esti Garcia, Borja Aldekoa... Nesketan orain Miren Ozerinjuregi eta ni. Orokorrean alde handia dago neska eta mutilen parte hartze kopuruaren artean. Adibidez gizonetzkoak ehun badira andrazkoak zazpi. Atzenaldian igarten da apur bat gehiago garala baina hasikeran hiru-lau ginan. Kilometroak eta gogortasuna bardinak dira neska zein mutilentzat. Bakotxak berea egin behar dau eta hori ondo dago. Nik ez dot gura neska izatearren errezago ipintea. Atzenean bakotxak daki zer egin leiken eta noraino heldu leiteken, non sartuteko gai dan. Niretzako hori inportantea da. Aldatz baten bizikleta gainean ezin badozu, bizikletatik bajatu baina aurrera. Ezin dana da neskentzako aldatz txikia eta mutilentzako handia ipini, danontzat bardin. Saillapenetan aparte goaz.

Zure lehenengo denporaldia eta emoitza onak...

Danak kasualidadeak dira (dino barreka). Egia da bigarren eta hirugarren postuak egin dodazala baina gehienetan andrazko gitxi egon garalako be izan da, holan errezagoa da postu ona ateratea. Baina oso pozik nago. Zallako mendi duatloian adibidez 7-8 neska egon ginan eta bigarren egin neban. Egun batzutan hobeto zagoz, beste batzutan okerrago. Baina atzenean nik beti esaten dodana, etxean geldituten danak gitxiago egiten dau. Ni ez nabil honetan, afizionaua naz, bizikletea orain dala hiru urte erosi neban. Miren Ozerinjuregik adibidez urte asko daroaz, trail be egiten dau... preparazino fisiko oso ona dauka, orduan holako jentek beti egingo dau ondo. Beste alde batetik, herrikoia dala esaten da baina herrikoierrikoia ez da, jente asko ez dalako bildurragaitik joaten. Btt martxa baten joan geintez 400 eta ni geldi-

tu neiteke, ehungarren baina duatloi baten ehun doaz eta ehun horreek onak dira. Ez da oso kirol ezaguna baina jente profesionala joaten da. Falta jakona hori da, jentea animea eta benetan herrikoia izatea. Danok daukagu azkenak izateko bildurra. Baina distantzia egingarria da danontzat, atzenean nork ez dauz egiten bost kilometro arineketan? Bizkorrago edo astiroago baina danok egiten doguz.

Esan leiteke kirol ezezaguna dala ondino?

Orain modan dagoz triatloiak eta trail-ak. Mendi duatloiak ez dagoz oso sartuta. Kompetizino honetan doan lehenengo Julen Laruzea da, Espainiako txapelduna eta Europako azpi txapelduna. Ez da berataz berba egiten. Bonbo gitxi emoten jako honeri baina denporeagaz seguru zabalduko dala. Adibidez igaz Arratia aldean ez zan bat be egin. Aurten Usansolo, Zeberio eta Zeanurin.

Polita da holango gauzak hona be heldutea.

Honetan segiduteko asmoa daukazu?

Ez. Belaunak ez daukadaz ondo. Proba moduan hasi zan eta ea ondo amaituten dogun. Etapa bat izango da. Datorren urtean ez dakit, seguru enik bizikletako beste erronka bat hartuko dot. Izan leitekez martxak, izan leiteke Bizkaia Kopa Trail... beste probaren bat begiratuko dot baina kompetizino barik, gura dodalako eta gogo daukadalako. Baina kompetidu ez, ez nazalako kompetitibe. Hobbie bat da eta ez dot hori galdu gura. Herri desbardinak ezetuten dozuz, jenteagaz bazkalduten dozu, ibilbidea alkarregaz ikusi, zerbeza bat hartu... Politena dagoan giroa da, niretzat garrantzitsuena. Giroa ez balitz ona, kompetitibo balitz, ez nintzan engantxauko; eta niri, horrexek engantxau nau, sortuten dan giroak.



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
 Amorebieta-Lemoa bidea
 Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
 48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.